


## ZALAMA (BIZKAIA) 1.343m



**Zalama** Ordunte mendilerroko punturik altuena da, iparraldean Karrantza bailara (Bizkaia) eta hegoaldean Mena bailara (Burgos) dagoelarik. Bizkaiak, Kantabriak eta Burgosek muga egiten dute mendi honen puntu geodesikoan (1335m), Euskal Herriko mendebaldeko muga izanik. Gailur honek Ordunte mendilerroaren amaiera markatzen du eta altimetriari dagokionez, Bizkaiko hirugarren altuena da, Gorbea eta Aldamin mendien atzetik.

Ordunte mendilerroari dagokionez, 14 mendik osatzen dute, forma suabe eta belartsuekin, 25 kilometrotan barrena. Ipar isurialdea malkartsuena da, eta oso iriste gutxi daude. Bertatik ubide ugari jaisten dira Karrantza bailarara. Hego-isurialdea, bestalde, ibiliena da, bidearen erraztasunagatik.

**Gure ibilbidea** San Pelaion hasi eta amaitzen da (43.1087842456169, -3.4347897128894505). 11km-ko ibilbide zirkularra proposatzen dugu, 580 metro desnibel positiboarekin.



**Km 0/0h**

**San Pelaiotik (782m) iparralderantz.**

**Km 1.8/0h 30'**

Naviciada mendi-lepotik (949m), lehenengo Ipar Ekialdera eta gero Iparraldeko norantzan jarraituko dugu pista zabal batetik. Zalama tontorra (1.343m)

**Km 4.5/2h**

**Km 6.5/2h30**

Basoan barrena, zeta batzuk egiten jaitsiko gara hegoalderantz, gero Heko mendebalderantz jotzeko.

**Km 10.4/3h45**

**Km 11/4h**

Igoerako ibilbidearekin elkartuko gara.

Ekintzaren amaiera. San Pelaiaora ailegatuko gara, arropaz aldatzeko denborarekin eta Estadio Fundazioan 15:00-tan egoteko.

### Data eta ordutegia:

- Data: 2023ko apirilaren 22an, larunbata.
- Lekua: Estadio Vital Fundazioa
- Irteera ordua autobusez: 8:00h\*
- Ibilbidearen iraupena: 4h
- Ekintzaren amaiera: 15:00h\* Estadio Fundazioan (gutxi gorabeherako ordutegia).

*\*Oharra: Bidaiak 1h 30'-ko iraupena izango du*

### Ekintzan parte hartzeko gomendatutako materiala: .

- Mendingian ibiltzeko arropa egokia, egoera meteorologikoetara egokituta.
- Mendingian ibiltzeko oinetakoak: mendiko botak edota trekking-ak.
- Motxila eroso, material pertsonala eramateko edukierarekin (30L).
- Kantinplora (1.5L) eta jateko.
- Eguzkitarako betaurrekoak, eskularruak eta txapela.
- Eguzki-babesa: kakao eta krema
- Botikina (esparatrapua, tiritak edota “compeed”, baselina, medikamentu pertsonalak, benda txiki bat, lodo-tintura...).

### Beste gomendio batzuk:

- Makilak
- Mugikorra
- NANA edo pasaporte
- Mendingian federatuta egotea.
- Autobusean aldatzeko arropa.